

«Konponbide demokratikoaren» aldeko sinadurak bilduko ditu Gernikako 'Lizarra Txikiak'

Bonbardaketan izandako errua aitortzeko eskatu dio Espainiako Estatuari

Joseba Arruti / Bilbo

Gernika-Lumoko **Lizarra Txikiko** taldeek herriko bonbardaketaren 63. urtemugaren inguruan landutako agiri bateratua aurkeztu zuten atzo Bilbon. Bertan, Euskal Herriak duen gatazka politikoa gaingintzeko, elkarriketaren eta negoziazioaren aldeko apustua egin dute. EAJk ez du sinatu dokumentua.

GERNIKA txiki-txiki eginda utzi zuen bonbardaketaren 63. urtemugaz baliatuta, herriko **Lizarra Txiki** foroan bildutako taldeek **Suntsiketarik eraikuntzara** lelopeko agiri bateratua landu dute, eta atzo aurkeztu zuten Bilbon. EGUNKARIAK atzo aurreratu zuen legez, EAJk ez du bat egin dokumentuarekin, Bizkai Buru Batzarrak hala erabakita, nahiz eta alderdi jeltzaleko Gernikako ordezkariak ados azaldu diren maila pertsonalean.

EH, EA, Zutik, ELA, LAB, EILAS, EHNE, Gernika Batzordea, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Elkarri, Jarrai, EGI eta Uztarri taldeek hitzartutako agiriak dioenez, Gernika «Espainiako Estatuaren erru-aitorpena, guk justiziaren izenean exijitzen duguna, oraindik jaso ez duen herria da». Bonbardaketaren ostean, Gernikak sinbolizatzen duen herria, Euskal Herria alegia, «bere



JOSU ETXEBARRIOSTE

Gernika-Lumoko **Lizarra Txikiko** taldeek landu duten agiri bateratua aurkeztu zuten atzo Bilbon.

izatea eta izangoa erabakitze-ko biderik gabe» geratu zela gogorarazi dute agirian. Horrek «bi zauri nagusi dituen gatazka handia» ekarri duela diote **Lizarra Txiki**-koek: batetik, «Euskal Herriak bere oinarritzko arazoak konpontzeko hitzik ez erabakirik ez izatea»; eta, bestetik, alde bietako bortizkeriaren zauria, «sustrai politikoa aurreko zaurian daukana».

Demokrazian sakondu beharra

Egoera hori gaingintzeko,

«demokrazia areagotzeko» eskatzen dute Gernikako taldeek. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dute «mugarik gabeko alde anitzeko elkarriketatik abiarazita, indarkeri adierazpide guztiak gaingintuz egindako negoziazio prozesuari ekitea eta, azkenik, negoziatutakoari buruz Euskal Herriko herritar guztiei azken hitza eta erabakia ematea».

Bide horretan, «Europako herritar, elkarte eta erakundeek Euskal Herriko gatazka konponbide elkarriketatu, sakon eta demokratiko honen aldeko iritzia eta jarre-

ra adierazteko» eskatzen zaie dokumentuan.

Agiriaren bultzatzaileek atzoko prentsaurrekoan adierazi zuten, datozen hiru hilabeteotan dokumentuarekiko atxikimenduak jasotzeko lanari ekingo diote: «Eta kopuru garrantzitsua bilduko dugulakoan gaude».

Gernikako **Lizarra Txikian** bildutako taldeek bi xedekin ari direla esan zuten: «Bake eta elkarriketaren aldeko kultura hedatzea; eta bonbardaketak sortutako gatazkak gaingintu dituen herri baten eraikuntza nazionalaren aldeko giroa sortzea».

Sanzek euskal nazionalistak «abarkadunak» deitu izana salatu dute EAK eta EHk

■ «UPNk Euskal Herriko izaera azaltzen duen ororen aurka jotzea baino ez daki» dio EHk

Erredakzioa / Iruñea

MIGUEL SANZ, UPNko presidentek herenegun euskal nazionalistak «abarkadunak» deitu izana salatu dute EHk eta EAK. EHren iritziz, UPNk «gutxiengoan dagoen Gobernua izan arren, Euskal Herriko izaeraren aurka hitz egiten baino ez daki». Ildo honetan, Sanz-i horrelako jokaera «bartzaitaileak, eta Nafarroako identitatea eta berezko hizkuntza iraintzen dutenak» sahiesteko eskatu dio koalizioak.

Ildo berean, «gure euskal herritar jatorria, eta hori izateko eskubidea defendatzen dugunok abarkadun deitzea astakeria da Nafarroa Euskal Herriko oinarritzko partaide da-eta», azaldu du Fermin Ziaurritz EAKo Nafarroako eledunak beste ohar batean.

Era berean, presidentaren hitzak aintzat hartuko balira, mende hasierako intelektual nafarrak, zein Foru Erkidegoko Gobernuak izendatu azken kultura saridunak «abarkadunak» liratekeela ohartarazi dio Sanzi. Bestalde, adierazpenok «nafarren arteko zatiketa bilatzen dutela» gaitzetsi du.

Trebiño Araban sartuz gero zerbitzuak hobetu egingo liratekeela diote bi alkateek

■ Hainbat hitzarmen sinatzeko mozioak onartuko dituzte gaur bi udalek

Eduarne Begiristain / Gasteiz

JUAN CARLOS Aguillo Trebiño alkateak eta Alfredo Oraa Argantzungoak uste dute Trebiño Arabaren parte izatea beharrezkoa dela konderriari zerbitzuak eskaini ahal izateko. Izan ere, haien irudiko, Burgosek ez du azpiegitura egokirik zerbitzu horiek emateko. Bi alkateek atzo Gasteizen eskaintako prentsaurrekoan adierazi zuten, EAE eta Gaztela-Leongo Batzorde Mistoak Trebiño auziari irtenbidea

eman behar dio konderria Araban sartu ahal izateko. Alkateen aburuz, apirilaren 4an sortutako Ponentzia Teknikoa «foro egokia izan daiteke» arazoari konponbidea emateko. Alta, foroak duen «dinamikarekin» ez daude ados, «zerbitzuak eskaintzeko soilik» dagoelako bideratuta.

Juan Carlos Aguillorren irudiko, foroak irtenbidea eman behar dio Trebiño auziari, baina kritikatu zuen herritarrek «pozik uzteko adabakia» jartzen aritu iza-

na. Alfredo Oraaren ustez, denbora pasa ahala gero eta susmo gehiago dute Ponentzia Teknikoa urtez urte arazoa luzatzen ari dela.

Mozioak onartuko dituzte gaur bi udalek

Trebiño eta Argantzungo udalek hainbat mozio onartuko dituzte gaur egingo duten Udalbatzan, alkateek jakinarazi zuten. Bertan, eskatuko dute euskara, kultura, ondare historiko, zabarren bilketa eta beste gaietan



JOSEBA OLALDE

Juan Carlos Aguillo eta Alfredo Oraa, Trebiño eta Argantzungo alkateak.

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Batzar Nagusiek eta Gasteizko Udalak onartutako hainbat akordio sinatu edota abian jartzeko. Bestalde,

Burgosko konderri bideratutako EAEko aurrekontu orokorretako 75 milioi zertarako erabiliko diren jakiteko zain daudela esan zuten.